



ZERAINGO HERRI BATZARRA

Txosten honek 2018ko ekainaren 24an egindako Herri Batzarrean Udalak emandako informazioa jasotzen du.



ZERAINGO HERRI BATZARRA	1
1. Sarrera	2
2. Udal Kudeaketa	2
Ordezkaritza bilerak	2
2017ko behin betiko itxiera	3
2018ko aurrekontuaren jarraipena	6
Udalaren balorazioa	6
3. Batzordeen berri	7
3.1 Herri Bizitza	7
3.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza	13
3.3 Tokiko Garapena	18



1. Sarrera

- Agintaldiko bederatzigarren Herri Batzarra da, aurtengo bigarrena.
- Bilera hau baliatuko dugu batez ere 2018ko lehen sei hilean landutakoaren berri emateko. Bereziki, otsailtik ekainera bitartean batzordeetan egindakoaren berri emango dugu.
- Gaurko informazioarekin egingo dugun txostena ohi bezala laster jasoko duzue buzoietan.

2. Udal Kudeaketa

2.1 Ordezkaritza bilerak

Azken hilabete hauetan izandako ordezkari bilerak:

ERAKUNDEA	BILERAK		ORDEZKARIAK
Partzoneria	Batzordea	3	Jabier
	Junta	2	Jabier eta Mikel
Sasieta	Batzarra	2	Amaia
Tobera Musika eskola	Junta	2	Arantza
Altsasukoak aske! Ekitaldia Arbizun	Ekitaldia	1	Arantza
Iparra hegoa Ekitaldi instituzionala	Ekitaldia	1	Arantza
Aizkorpeko herrien urteko bilera	Bilera	1	J.Mari, Amaia eta Arantza
Goimen	Junta	4	Arantza
Ertzantza	Bilera	1	Arantza
UEMA	Batzar Nagusia	1	Arantza
	Besteak	3	Udal talde osoa
Kultura Saila Ondarea	Bilera	2	Amaia, Arantza eta Ana
Ur Kontsorzioa	Batzar Nagusia	1	Amaia
Fomento Ministeritza	Bilera	1	Amaia, Aloña, Arantza eta Mikel
GFA Oreka	Bilera	2	Arantza, Amaia eta Ana
GFA Parte hartzea	Herri txikien lantaldea	2	Arantza
	Exekutiba	1	
GFA turismoa Burdi bidea	Bilera	1	Amaia eta Arantza
	Junta	2	Aitziber
GFA Berdintasuna	Herri txikiak	1	Arantza eta Amaia
	Protokoloa	1	
GFA Errepideak	Bilera	1	Arantza, Amaia eta Ana
EJ Landa Garapena	Bilera	1	Arantza, Amaia eta Ana
Guztira otsaila-ekaina	37		



2.2 2017ko behin betiko itxiera

Aurreko herri batzarreko txostenetik abiatuz, non 2017ko irailarteko kontuak izanda 2017ko itxiera aurreikusten genuen, dagoeneko badugu 2017ko behin betiko itxiera.

SARRERAK

2017	SARRERAK		
	AURREKONTUA	ITXIERA	DESNAZIOA
IBILGAIUEN -ONDASUNAK	68.750,00 €	68.287,52 €	-462,48 €
OBRAKO ZERGAK	5.000,00 €	9.580,36 €	4.580,36 €
TASAK (ZABORRA-FRONTIOIA)	25.600,00 €	27.373,00 €	1.773,00 €
FORU FUNTSA eta BESTE BATZUK	250.543,00 €	249.555,42 €	-987,58 €
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €	5.522,47 €	-1.277,53 €
SARRERA FINKOAK	356.693,00 €	360.318,77 €	3.625,77 €
E.J.: HEZKUNTZA	2.422,00 €	10.701,04 €	8.279,04 €
FRONTOIKO TEILATUA (Lehen Bide berdea)		25.813,25 €	25.813,25 €
E.J.: BIODIBERSITATAEA	28.000,00 €	16.951,61 €	-11.048,39 €
FORU ALDUNDIA: BASERRI BIDEAK	17.364,00 €	17.364,00 €	0,00 €
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	47.786,00 €	70.629,90 €	22.843,90 €
MAILEGUA	197.582,00 €	190.000,00 €	-7.582,00 €
DENERA	602.061,00 €	620.948,67 €	18.887,67 €

2017ko aurrekontuan, 2015eko eta 2016ko itxiera negatiboak estaltzeko kreditu baten beharra aurreikusi genuen. Egoera zail hau, aurretik aurkitutako egoera txukuntzearekin etorri zen. Hau da, ZERAINZEN S.A. enpresa ia sortu zenetik galerak zituela eta gainera, aurretik 2004an eskatutakoa mailegu batetik 70.000 € falta zirela ordaintzeko.

Ahalik eta gehien estutu genuen eskatutako mailegua eta azkenean aurreikusi baino 7.582 € gutxiago eskatu behar izan genituen, maileguaren kopuru totala 190.000 €-tara iritsiz.

Sarrera finkoak aurreikusitakoak baina altuagoak izan ziren eta baita sarrera aldakorrek ere (diru laguntzetatik datorren dirua). Guzti honek espero baino 18.887 € gehiago sartzea ekarri zuen.



GASTUAK

2017	GASTUAK		
	AURREKONTUA	ITXIERA	DESBIAZIOA
MAILEGUAK	72.156,00 €	69.117,23 €	3.038,77 €
UDALEKO LANGILEEN SOLDATA	146.077,00 €	141.792,42 €	4.284,58 €
HIRIGINTZA	10.000,00 €	12.267,24 €	-2.267,24 €
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	17.500,00 €	13.653,37 €	3.846,63 €
UR -ARGINDARRA-BEROGAILUA-HILERRIA	16.200,00 €	14.091,93 €	2.108,07 €
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	21.200,00 €	19.906,04 €	1.293,96 €
ONGIZATEA + OSASUNA+JUBILATUEK	6.900,00 €	4.842,55 €	2.057,45 €
HEZKUNTZA PROIEKTUA	14.300,00 €	11.944,69 €	2.355,31 €
KULTUR EKIPAMENDUAK ETA SUSTAPENA	12.000,00 €	10.362,00 €	1.638,00 €
EUSKERA	6.700,00 €	13.868,68 €	-7.168,68 €
EKINTZA SOZIO-KULTURALAK	10.500,00 €	9.652,87 €	847,13 €
TURISMOA	29.500,00 €	36.787,14 €	-7.287,14 €
ADMINISTRAZIO OROKORRA	35.300,00 €	29.273,14 €	6.026,86 €
GASTU FINKOAK	398.333,00 €	387.559,30 €	10.773,70 €
ZERAINZTEN, S.A	41.970,00 €	38.060,57 €	3.909,43 €
GASTU FINKO OROKORRAK	440.303,00 €	425.619,87 €	14.683,13 €
BASERRI BIDEAK	24.806,00 €	25.150,96 €	-344,96 €
FRONTOIKO TEILATUA (lehen Bide berdea)	26.063,00 €	62.676,00 €	-11.613,00 €
	25.000,00 €		
BIODIBERSITATEA	29.598,00 €	27.107,85 €	2.490,15 €
AUZOEN INBERTSIOAK	4.000,00 €	0,00 €	4.000,00 €
ETXEBIZITZA SOZIALAK : AURREPROIEKTUA	39.000,00 €	1.500,00 €	37.500,00 €
BESTE PROIEKTUAK(AUTOKARABANA+KIROLA)		2.130,00 €	-2.130,0 €
GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	148.467,00 €	118.564,81 €	29.902,19 €
DENERA	588.770,00 €	544.184,68 €	44.585,32 €

Orokorrean pozik gaude, gastu finkoetako ia atal guztietan aurreikusitako baino gutxiago gastatu dugulako, eta sarrera finkoek gastu finkoak estaltzeko helburua lortzeko gertu gaudelako.

Hiru ataletan bakarrik gastatu dugu espero baino gehiago. Udal arkitektoa, jasotako kontsulta guztien ondorioz. Euskaran eta turismoan, Zeraintzako garrantzi estrategikoa duten arloak direnez, baliabide gehiago bideratu ditugu hauetara.

2017an Zeraintzen S.A. ixtearen ondorioak ordaintzeaz bukatu da. Azkenik, eskatutako diru laguntzetan eta burututako proiektuetan ere gutxiago gastatu da.



KONPARAKETA

2017	SARRERAK		
	AURREKONTUA	ITXIERA	DESBIAZIOA
SARRERA FINKOAK	356.693,00 €	360.318,77 €	3.625,77 €
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	47.786,00 €	70.629,90 €	22.843,90 €
DENERA	602.061,00 €	620.948,67 €	18.887,67 €

2017	GASTUAK		
	AURREKONTUA	ITXIERA	DESBIAZIOA
GASTU FINKOAK	398.333,00 €	387.559,30 €	10.773,70 €
GASTU FINKO OROKORRAK	440.303,00 €	425.619,87 €	14.683,13 €
GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	148.467,00 €	118.564,81 €	29.902,19 €
DENERA	588.770,00 €	544.184,68 €	44.585,32 €

Konparaketan ikus dezakegun moduan, 2017ko itxiera ondo joatea, gutxiago gastatzearen eta gehiago sartzearen ondorioa izan da. Denera 18.887 € gehiago lortu dira eta 44.585 € gutxiago gastatu dira.



LABURPENA

	2015-2016	2017
DIRU-ZAINTZA GERAKINA	-105.693,01 €	-42.220,02 €
PEF		-71.313,00 €
ITXIERA		63.472,99 €

- 2017ko likidazioan sortutako diruzaintzako gerakin negatiboa PEFean aurreikusitakoa baino baxuagoa da.
- 2017ko aurrekontuaren likidazioak emaitzak hobetu egin ditu 29.000 €-tan, PEFak aurreikusitakoen aldean.

2.3 2018ko aurrekontuaren jarraipena

Lehen sei hilabeteko balorazioa egiteko goizegi da eta hurrengo herri batzarrean azalduko dugu. Orokorrean aurreikusitakoa betetzen ari gara eta partida aldaketa txikiak besterik ez ditugu egin.

2.4 Udalaren balorazioa

Aurten ere herritarrek udalaren hirugarren urtea zuzenean baloratzeko aukera izango dute udan zehar egingo dugun balorazioan. Herrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako zeraindar guztiak jasoko dute inkesta etxeetan eta kurtso berrirako emaitzak izatea espero dugu.



3. Batzordeen berri

3.1 Herri Bizitza

Jarraian hilabete hauetako ekintzak eta diru-kontuak azaltzen dira:

OA-KO 2017KO ITXIERA

Taulan ikusten den bezala (hurrengo orrian), 2017ko urtean, urtean zeharreko ekintza ezberdinetan eta festetan izan diren diru sarrera eta irteerak ikus ditzakegu.

IRTEERA OSOA 2017koa: **16.111,03€**

SARRERA OSOA 2017koa: **17.067,28€**

IRTEERA ETA SARREREN ARTEKO ALDEA: **956,25€**

Ekintzen balorazio ona egin zen orokorrean eta hobekuntzaren bat proposatu bazen, aurten kontuan izango dugu.

2017ko KULTUR EKINTZEN IRTEERA ETA SARRERAK	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
2017ko EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA	0,00 €	0,00 €	0,00 €
2017ko UDABERRIKO KULTUR ASTEA	1.406,14 €	408,00 €	-998,14 €
2017ko AZALAREN LEIHAKETA (Urtekarria eta festako programa)	99,85 €	0,00 €	-99,85 €
2017ko SAN JUAN BEZPERA	282,28 €	0,00 €	-282,28 €
2017ko MUTILOARA JETSIERA	40,00 €	0,00 €	-40,00 €
2017ko HERRIKO FESTAK:			
ABUZTUAK 14, astelehena	4.197,85 €	2.642,00 €	
ABUZTUAK 15, asteartea	2.740,52 €	600,00 €	
ABUZTUAK 16, asteazkena	1.093,52 €		
GASTU OROKORRAK	1.864,88 €		
SARRERA OROKORRAK*		1.864,68 €	
	9.896,77 €	5.106,68 €	-4.790,09 €
*OHARRA: EZ DA KONTUAN HARTU MANDIO, OSTATU, LUMAGORRI, OTATZA ETA OHIARTEKO APORTAZIOA EZ DELAKO DIRUTAN EMATEN.			
2017ko EUSKERAREN EGUNA	169,83 €	0,00 €	-169,83 €
2017ko GABONAK	1.352,20 €	1.767,60 €	415,40 €
2017ko BESTELAKO KONTUAK	2.863,96 €	9.785,00 €	6.921,04 €
*HARPIDETZAK, ERAKUSKETAK, JUBILATU EGUNA, DIRU-LAGUNTZAK			
DENERA	16.111,03 €	17.067,28 €	956,25 €



2018KO MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Aurten berezia izan da, mobilizazio izugarriak izan dira. Zerainen ere aurremantalak zintzilikatu ziren balkoietatik eta elkarretaratzea izan zen plazan.



Ondoren hitzaldia Patri Espinar eta Ainhoa Azurmendiren eskutik eta "Pilota girls" emanaldia. Bukatzeko afaria egin genuen denok batera Ostatun.



2018ko EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
PATRI ESPINAR-AINHOA AZURMENDI (2X125)	250,00 €		
OSTATUN AFARIA	0,00 €		
	250,00 €	0,00 €	-250,00 €

2018KO UDABERRIKO KULTURALDIA

Maiatzean izan degu, hilabete osoa eta hitzaldi ezberdinak etab. izan dira.

- *MAIATZAK 5*: Segura-Zerain mendi lasterketa.
- *MAIATZAK 8*: Erik Aznal Larrañaga “Pasaiaiko badia” hitzaldia.
- *MAIATZAK 10*: J.A. Mujika Alustiza “Historiaurrea Goierriin” hitzaldia.
- *MAIATZAK 13*: HERRI BAZKARIA.
- *MAIATZAK 17*: Alberto Santana “Zerain. Herriaren izena eta ikurraren historia” hitzaldia.
- *MAIATZAK 22*: Alfredo Moraza eta Manu Ceberio “San Adriango indausketak” hitzaldia.
- *MAIATZAK 25*: Haurren marrazki Rallya eta patata tortila leihaketa.
 - Saria janzkera onena: Oroitz, Arantzazu eta Aloña S.
 - Saria tortila onena: Haizea, Irati eta Garazi.



ZERAINGO
UDABERRIKO
KULTURALDIA
2018ko MAIATZA



2018ko UDABERRIKO KULTUR ASTEA	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
MAIATZAK 5 -SEGURA ZERAIN MENDI LASTERKETA- (Xabi udal langilearen ordu batzuk udalekoak)	0,00 €		
MAIATZAK 8 -ERIK AZNAL LARRAÑAGA HITZALDIA-	125,00 €		
MAIATZAK 10 -J.A. MUJICA ALUSTIZA HITZALDIA-	125,00 €		
MAIATZAK 13 -HERRI BAZKARIA-SAN IXIDRO EGUNA-	626,58 €	251,00 €	
MAIATZAK 17 -ALBERTO SANTANA HITZALDIA-AFARIA-	199,50 €		
MAIATZAK 22 -ALFREDO MORAZA ETA MANU ZEBERIO HITZALDIA-	150,00 €		
MAIATZAK 25 -PATATA TORTILA LEHIAKETA-OSAGAIK	208,82 €		
MAIATZAK 25 -PATATA TORTILA LEHIAKETA-SARIAK 4 Lagunentzat afaria	100,00 €		
	1.534,90 €	251,00 €	-1.283,90 €



IKASTAROAK

2017-2018ko ikasturtean ikastaro ezberdinak izan dira eta kurtso berrira begira jarraitzeko asmoa azaldu dute parte hartzaileek:

- Zumba.
- Yoga.
- Gazteen esku soinua.
- Tobera musika eskola 2018-2019 ikasturtean, eguerditan, eskolako haurrekin klaseak ematen hasiko da.

ERAKUSKETAK

Urtean zehar egindako erakusketak:

- Lemniskataken eskutik: Argazki erakusketa izan genuen martxoan.
- Ibaialderen eskutik: Ibaien inguruko erakusketa izan degu ekainean.

SAN JUAN BEZPERA ETA URTEKARIKO AZALAREN ETA FESTETAKO PROGRAMAREN AZALAREN III.LEHIAKETA

Atzo izan ditugu, ekainak 24, bi ekintza hauek eta aipatzekoa da:

- Festen azalaren irabazlea: Lur Elortza
- Urtekariko azalaren irabazlea: Izar Fonori

UDAKO EKINTZAK

Udan eratzen zaizkigun ekintzak:

- **Ekainak 29**, 19:15etan plazan elkartu eta Mutiloara jetsiera izango da.
- **Uztailak 11**, asteazkena 7etan kultur etxean 2018ko Herriko Festak antolatzeke 3.bilera.
- **Uztailak 16**, Euskarabenturakoen etorrera eta afaria.
- **Abuztuak 13tik 17ra** Herriko festak.

EUSKARABENTURA

Euskarabentura uztailean zehar Euskal Herri guztia zeharkatuko duen espedizioa da. 16-17 adin tarteko 120 euskaldun gazteek osatutako talde batek, Mauletik abiatu eta Getxora iritsi arte, Euskal Herriko lurralde guztiak zeharkatuko ditu Done Jakue bideak jarraituz.

UZTAILAREN 16an, astelehena, Zerainen egingo dute geldialdia Tolosara bidean. Egun horretarako beraiekin elkarlanean, afari bat antolatu dugu Zeraingo plazan. Aukera paregabea iruditzen zaigu herriko gazteek beste lekuetako gazteak ezagutzeko eta auzolanean iluntze aparta pasatzeko. Horretarako, herritarrak afariaren prestaketan eta antolaketan parte hartzea nahiko genuke eta nola ez denok elkarrekin afaltzea. Espedizioan datozen gazteek ere parte hartuko dute banaketa eta jasotze lanetan.



Hitzordua: uztailaren 16an, 17:00etan plazan elkartuko gara.

Konfirmatu mesedez etorriko zaren edo ez, udalera deituz edo edozein zinegotziri zuzenean abisatuz. Animatu eta parte hartu esperientzia berezi honetan!



Guzti hauek eta beste gai batzuk lantzeko Herri bitzta batzordea hilean behin elkartzen da, hilabeteko lehen asteazkenetan, 18.30etatik 20.00tara udaletxean eta edozeinek parte har dezake batzordean, hurrengo bilera **uztailaren 11n izango da.**



3.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza

Hilean behin izaten da bilera, ostegunetan arratsaldeko 18:00-19:30 bitartean. **4 bilera** egin ditugu otsaila eta ekaina bitartean.

Bilera, ekainekoa, ekainaren 28an izango dugu. 9 pertsona modu iraunkorrean parte hartzen ari dira.

Lantzen ibili garen proiektuak:

GAZTE ETA ADINEKOENTZAT ETXEBIZITZAK




BEHARRA: 2000-2017 epealdian Zeraingo 23 gaztek alde egin dute herririk inguruko herrietara. Horietatik 15 Goierri bertan geratu dira , inguruko herrietan. Beste 8 Goierrikanpo bizi dira. Horietako askok herrian geratzeko saiakera egin zuten arrakastarik gabe.

NORA JOAN DIRA?	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
SEGURA	3	4	7
ZEGAMA	2	1	3
BEASAIN	0	2	2
ORDIZIA	1	0	1
ATAUN	0	2	2
GOIERRIKO BESTE UDALERRIETARA	6	9	15
GOIERRITIK KANPO	5	3	8
GUZTIRA	11	12	23

2009an Zeraingo Udalerriko Hirigintza Plan Orokorra onartu zen. Bertan 3 lur sail publiko erreserbatu ziren etxebizitzak egiteko herri kaskoan, guztira 25 etxebizitza egiteko aukerarekin. Gure proiektua:

Elizatzeko eremua (Antxaputxun). Eraikin bat 8 apartamendurekin. Bioeraikuntza. Babestutako alokairua. 550.000 €

Urte eta erdiko lanketa egin dugu (2016ko abenduatik-2018ko ekainera) eta azkenean lorpen pozgarria: **Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak gure proiektua babestu du eta ia %65eko finantziazioa eman digu, 344.000 € hain zuzen ere.**





Lankidetza hitzarmena Zerain Dezagun Fundazioa eta Udalaren artean egin dago Fundazioak proiektua eraiki eta kudeatzeko. Hiru hankako eskeman (Udala, Oa Kultur Elkarte eta Zerain Dezagun Fundazioa) ikusi dugu Fundazioak dituen helburu sozialak bat egiten dutela proiektu honen helburuarekin.

Falta diren 200.000 €-ak finantzatzeko beste diru laguntza batzuk eskatu ditugu eta mailegu baten bidez ordainduko dira 13 urtetan, errentan jasotzen denarekin. Proiektua bakarrik ordaintzen da. Bi aukera jarri ditugu:

- Lehenengoan 150 €-ko batz besteko errenta hartu dugu kontuan, 8 apartamendu kontuan direla 1.200 € hileko jasoko genuke eta urte batean, $1.200 \times 12 = 14.400$ € urteko.
- Bigarreanean 200 €-ko batz besteko errenta hartu dugu kontuan, 8 apartamendu kontuan direla 1.600 € hileko jasoko genuke eta urte batean, $1.600 \times 12 = 19.200$ € urteko.

MAILEGUA 13 URTETAN															
URTEKOP.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	TOTAL	
URTEA	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031		
ALMERA 1	150 €/YBL	7.200 €	14.400 €	14.400 €	14.400 €	14.400 €	14.400 €	14.400 €	14.400 €	14.400 €	14.400 €	14.400 €	14.400 €	14.400 €	180.000 €
ALMERA 2	200 €/YBL	9.600 €	19.200 €	19.200 €	19.200 €	19.200 €	19.200 €	19.200 €	19.200 €	19.200 €	19.200 €	19.200 €	19.200 €	19.200 €	240.000 €

Gainera aurretik badugu esperientzia:

- 2004ean Udalak mailegu bat eskatu zuen 400.000 € ingurukoa 14 urtetan ordaintzeko eta urtez urte arazorik gabe 38.000 € ordaindu dira.
- Udalak urtero Fundazioari turismoa kudeatzeko helburuarekin 23.000 € (horietatik 9.000€ Iturbask-ek emanda) ematen dizkio Aldabe Kooperatibarekin duen kontratua ordaintzeko.

Gainera 13 urte eta gero, Fundazioak etxebizitzan kudeaketatik 15.000/20.000 €-ko sarrerak izango dituela aurreikusten dugu, herrian inbertitzeko.

Aurre eskaera dagoeneko 20 pertsona baino gehiagok egin dute. Eskaera aurrerago egingo da. UEMAK Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin du eta ez du inolako eragin negatiborik aurreikusten. Txostena eskuratu nahi duenak Udalean eska dezake. Azken gauzak lotzen ari gara.



Aipatu azken asteetan ohartu gara erakunde batzuk ez direla ari kolaboratzen esperoko gure mailan eta abiaduran. Ez laguntzarekin, lana oztopatuz.

Eta herri mailan ere proiektu honen kontra alegazio bat aurkeztu da eta bilera bat egin da, gure ustez jendeari beldurra sartzeko. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saila ezik; haiek alokairuaren aldeko apustua egiten ari dira gu bezala eta Etxebizitza Sailarentzat proiektua beharrezkoa, interesgarria eta polita da.

ZERAINGO PLAZAN ERREMENTARI ETA SERORATEGI BIRGAITZEA

2017ko Leader deialdian ez zuen laguntzarik jaso. Bilera asko egin ditugu:

- GFA: ondarea, turismo, lurralde Oreka
- EJ: ondarea, landa garapena

2018ko Leader deialdian eskaera berria egingo dugu, lantzen.

AIZPEAKO MEHATZAK

2017ko Fomentoko deialdian ez zuen laguntzarik jaso. Fomentoko arduradunarekin bilera egin dugu Madriden. 2018ko deialdian eskaera berria egingo dugu, lantzen.

BASERRI BIDEAK

Lehentasun handiarekin katalogatutako baserri bide guztientzat eskatu dira azken hiru urtetan diru laguntzak.

Baserri bide bat konpondu da eta beste bi falta dira Barbari eta Aizpean. Ordaintzeko irizpidea ondorengoa izan da: laguntzarik jaso ez duen zatia erdibana ordaintzea udalaren eta bide hori erabiltzen duten bizilagunen artean.

2019an Arrola Goikoa eta Kozmendiko bigarren parteak egingo dira. Arakamane eta Araneri ez diote diru laguntzarik eman, eta datorren urtean berriro saiatuko gara.

ZUNTZ OPTIKOA

Jasotako 15 eskaerei irtenbidea emateko gestioak egiten gabiltza. Telefonica-k zuntza jartzea AURREIKUSITA dauka:

- OTATZA AUZOAN: 4 zenbakitik 16ra (13 eta 15 ezik)



- KOZMENDI AUZOAN: 20 tik 26ra (25 ezik)

hala ere, beraientzat **EZ LEHENETSITA** (kostuarengatik) dago proiektua. Data ez digute eman. **DEITU EGIN BEHAR DA 1004 ZENBAKIRA**, etenik gabe eta bizilagun guztiek (horrela lehentsi egingo dute).

Beste aukera bat sortu da eta Informazioa bidali zaie interesatuei.

BASOKO PISTAK

Lurjabeek proposatuta diru laguntza eskatuko da baso pista bat konpontzeko GFAan.

Urruztiko baserri bidetik abiatu eta Larraondora arte doana. Ordaintzeko irizpidea: laguntzarik jasoko ez duen kopurua bide hori erabiltzen duten lurjabeen artean ordainduko da.

MANDIOA

Urtarrileko herri Batzarrean iragarri genuen Aldabek Mandioaren kudeaketa uztea erabaki zuela nahiz eta azaroa arte duen kontratua. Aldabe Kooperatibak Mandio taberna ekainaren 30ean itxiko du.

Taberna gestionatzeko lehiaketa martxan jarri zuen Udalak baina ez zen inor aurkeztu. Beste aukera batzuk lantzen ari gara udaletik taberna irekita egon dadin. Zehazki erantzun baten zain gaude, Mutiloko ostatua eta Oiangu kudeatzen duen kooperatibarena.

Denon artean laguntza behar dugu ahoz aho zabalduz alokatzeko aukera dagoela.

GOI TENTSIOKO PROIEKTUA (plataformaren bidez jasotako informazioa)

Hirugarren aldiz hasi da Gobernua proiektua lantzen. Parte hartze prozesua egongo da Nafarroan bakarrik ibilbideari buruz galdegiteko. Red Electricak jarri du martxan parte hartze prozesua. Ikusten da aurpegia garbitzeko dela.

Ez dakigu Tolosatik edo hemendik pasako den baina aukera gehiago daude Goierritik pasatzeko. Hautetsien atxikimendua jasotzen hasi da plataforma, eta Zeraingo hautetsiak sinatu dugu dagoeneko dokumentua.

Plataformakoek ez dute etsiko. Gipuzkoan prentsaurreko bat antolatzeko asmoa dute.



MUTILOAKO ZABORTEGITIK USAINA

Mutiloako zabortegitik USAIN txarra datorrela adierazi digute herritar batzuk. Mutiloako Udalak bilera egin du GFArekin eta neurketak egingo dituzte. Eraitzen berri emango digute eta horren arabera jakingo ditugu hurrengo urratsak.

3.3 Tokiko Garapena

Hilabete hauetan landutako gaiak:

AZOKA EKOLOGIKOA

Aurtengo XXIV. Azoka Ekologikoa antolatzeko lehen bilerak hasi dira. BIOLUR eta Goierriko Baratzakoekin antolatuta. Iazko plantamendu berdina egin da, herriko postu handi batekin.

TURISMOA

2017ko datuak jadanik baditugu. Jarraian taulan laburtzen ditugu eta 2016koekin alderatzen dira hobekuntza pixka bat adierazteko:

2017ko TURISMOKO DATUAK	2017	2016
ATERPEAN LO EGITEN GERATU DIRENAK	1.171	1.180
MUSEORAKO SALDUTAKO SARRERAK	7.841	7.290
TURISMO BULEGOTIK PASATAKO BISITARIAK	11.893	11.525

PIRINIOETAKO BURDINAREN BIDEA

Maiatzean elkarteko juntaren bilera egin zen eta parte-hartzaileek Zerain bisitatzeko aukera izan zuten. Estatutuak dagoeneko firmatu dira eta lehen lanetan hasi dira (erakusketa ibiltari bat) eta web orria.

